

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko otsailaren 13a / 572. zenbakia

MAITASUNEZKO HITZAK

Elena Laka, herriko onena Amodiozko Gutunen Lehiaketan



JAIK: **INAUTERIETAKO PROGRAMA GERTU/6** • LOGOTIPO LEHIAKETA: **MIREN URTZELAI IRABAZLE/10**

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIA: ARTXIBOA

Mariaren Lagundia Ikastola



Zatoz gurerera !!!



ETAPAK

- * Haur Hezkuntza 0-6
- * L Hezkuntza 6-12
- * DBH 12-16
- * GMHZ 18 urtetik gora

MATRIKULAZIO EPEA

OTSAILAREN 16tik 27ra

IKASTOLAKO IDAZKARITZAN
Tel.: 943 76 25 40-41



i

ATREBENTZIAEZPADA/ San Valentín eguna ospatzeko ohiturarik badaukazu? Zela?



MARTA ROBLES
40 urte

Ni Ekuadorrekua naiz, eta han zelebratzen giñuan; hortaz, hemen be egingo dogu zoezer. Opariren bat, familiakuekin alkartu... Maittasun eguna dan neurrixan ospatu bihar da.



EUGENIO PELICANO
31 urte

Bai. Lehen, alabarik ez geunkanian, etxetik kanpo irteten giñan afaltzera egun horretan, baiña oin erregaluekin zelebratzen dogu. Bikotekidiari lora bat-edo emongo dotsat.



GORKA BELASTEGI
34 urte

Ez, ez daukat bikotekide-rik. Baiña bestela be ez dot uste zelebrauko nebanik. Egund komertzial bat da eta maittasuna badago edozein egunetan izan bihar da San Valentín.



IRENE UNZUETA
29 urte

Ez. Igual aurreko edo hurrengo egunian egingo dot zoezer espeziala zelebratzeko, baiña egunian bertan ez. Saltzeko eginda-ko montaje bat besterik ez dala pentsatzen jat.



XABIER MAIA
31 urte

Ez, bapez. San Valentín maiteminduen eguna da, eta bikotekidia badaukazu urteko edozein egun eta aitzaki izan leike ona aldamenian daukazanari maitte dozula esateko.



ARANTAZU NARBAIZA
53 urte

Batzutan bai. Gizonakin bazkari edo afariren bat egitten dot. Erregalorik apenas, larrosan bat, baiña igual hori be ez. Eguna ailegatzan danian urtetzen dana egin eta kitto.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK SAN MARTZIALERAKO BIDEA Irakurle batek deitu digu San Martzialerako bidearen egoera salatzeko. Zuloz beterik dagoela esan digu, oso baldintza eskasean. Gainera, irakurle honek azaldu-takoaren arabera, bide bazterrak garbitu barik egoten dira eta, ondorioz, euria egiten duenean, ura bide erditik behera datorrela esan digu. Udalak zerbait egin beharko lukeela gaineratu du. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /7

Hautesle errolda

Martxoaren 14ko hauteskundeetan 12.557 bergararrek izango dute botoa emateko eskubidea.

KIROLAK /10

Miren Urtzelai, irabazle

Miren Urtzelai irabazi du Euskal Herriko Itzulirako ikasleen artean egindako logotipo lehiaketa.

KULTURA /12

Organo kontzertua

Oscar Candendo eta Loreto Aramendi organo jotzaileak bihar, zapatua, San Pedron.

ASTEKODATUA

22

GRADU IZAN GENITUEN AURREKO EGUBAKOITZEAN

Aste honetan temperaturak behera egin duen arren, 22 gradu izan genituen aurreko egubakoitzean, otsailaren 6an. Udaberri sasoi-ko eguraldia izan genuen San Blas eta Santa Ageda inguruan.

BESTEKEESANA

“

Ehunka torturatu ikusi ditugu; botereak bere funtzionarioak babesten ditu, baina testigantzak daude.

Egunero torturatzen da eta polizia gorputz guztiek egiten dute" **IÑIGO ELKORO / Torturaren Aurkako Taldeko ordezkaria** 'Berria' /04-02-05

“

Pronostikoak Titin-Goñi III.a eta Olaizola II.a-Beloki bikoteen aldekoak dira. Baina final laurdenetara

iritsi direnek konfiantza lortu dute. **Aimar Olaizolak eta Ruben Belokik oso bikote hona osatzen duten arren badut esperantzarik. Asegarceko bikoteak ez du ezer oparituko, hala ere, Martinez de Irujo bere jokoari onura ateratzen dihardu" **JOKIN ETXANIZ / ASPEko kirol zuzendaria** 'Diario Vasco' /04-02-10**

BERAIEKDIÑO / Unai Lopez



Baita San Valentín egunez ere

Otsailaren 14a, San Valentín, maiteminduen eguna. Bikote askok edukiko du biharkoa gorritz borobildurik egutegian; lore, bonboi, olerki edo afari bat ardatz izango duen data saildua.

Egun honetan maitasunari salneurria ipintzen ote zaion galdetzen diot buruari: Opari edo oroigarri garestiagoa, maitasun sutsuagoaren adierazgarri ote? Ezetz espero. Muntai komertzial bihurtu dela ezin ukatu...

Ohiko eztabaida hau baino bidegabekeria larriagorik izango da bihar gure gizarte "aurreratu" honetan maitasunaren izenean. San Valentín eguna aurreko bikoteek baino dezente gorriago ikusiko duen emakumerik izango da bai bihar, isiltasunean, bakardadean, sufrimenduz atsekabeturik erruki eskean igaroko duenik, alajaina.

Horietako askok bonboietaz edo afari "erromantikoaz" bikoteak emandako jipoian

ondorioz erietxe bateko ohean higitu ezinik gozatzeko mauka izango du. Panpina edo hartzik, olerki gozo eta guzti, jaso ezean, gupida gabeko hartz baten mehatxuak beste behin jasan beharko dituenik ere izango da biharkoan, malko artean bere buruari gurutze bide hori noiz eta nola bukatuko den galdetzen dion bitartean. Tamalez aurten iaz baino ugariagoak izango dira arrosa sortaren bat jasoko duten emakumeak; hilotz, tamalez. Bai sarkorra arrosa hauen usaia.

Hautentzat ere otsailaren 14a San Valentín eguna izango da, maiteminduen eguna. Biharkoan ere 11 minuturo salaketa berri bat ezarriko da tratatu txarren ondorioz gugandik ez oso urrun, Zornotzan edo gurean, beste emakumezkoren bati bizia errotik moztuko dioten bitartean. Lasai, bihar ez bada, astearte aurretik seguru, 2003ko estatistikak lekuko. Baita San Valentín egunez ere; kontraesana, ezta?

"Bihar ere 11 minuturo salaketa bat jarriko da tratatu txarren ondorioz gugandik ez oso urrun"

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Miren Almaraz

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 13**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- ZAPATUA, 14**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- DOMEKA, 15**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 16**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15
- MARTITZENA, 17**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 18**
ZABALA. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- EGUENA, 19**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
 - Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
 - Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
 - Ertzaintza 943 53 47 20
 - Osasun etxea 943 76 24 40
 - Asepeyo 943 76 16 43
 - Pakea 943 76 13 49
 - Angiozako medikua 943 78 90 27
 - Antzuolako medikua 943 76 62 23
 - Odol emaleak 943 76 16 24
 - Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
 - Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
 - Udal Artxiboa 943 77 91 32
 - Igerilekuak 943 76 20 51
 - Kultura etxea 943 77 91 58
 - Liburutegia 943 77 91 62
 - Kiroldegia 943 76 56 41
 - Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaltzia 943 76 14 92
 - Erregistroa 943 76 13 15
 - Jardun 943 76 36 61
 - Idolaz 943 76 65 08
 - Erretiratuen etxea. Bergara. 943 76 21 40
 - Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
 - Postetxea 943 76 26 85
 - Bedelkar 943 76 04 68
 - Akulu AEK. 943 76 05 18
 - Udal Euskaltegia 943 76 44 53
 - Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--|---|
| San Pedro
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00. | Labegaraieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:30.
Moja Zaharrak
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 11:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Santa Marina
Domekak: 11:00, 13:00.
Zapatuak: 19:00. | Antzuola
Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Uzarraga
Domekak: 10:00.
Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | |
| Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00. | |
| Elosu
Domekak: 10:30. | |
| Ubera
Domekak: 10:30. | |
| San Juan
Domekak: 11:00. | |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |
- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.

OHARRAK

1978AN JAIOTAKOEN BAZKARIA MARTXOAREN 13AN
1978an jaiotako enbergararren bazkaria martxoaren 13an Txarrantxa jatetxean. Izenematea (20 euro) Euskadiko Kutxan (3035 0009 1900 9007 0394), otsailaren 28ra arte. Bazkari egunean 12:00etan elkartuko dira Pol-Polen.

ASTINDU ALDIZKARIKOEN BILERA EGUAZTENEAN
Astindu aldizkariaren gaineko bilera irekia izango da eguaztenean, hilaren 18an, gaztetxean, 18:30ean. Besteak beste, etorkizuneko asmoak izango dituzte aztergai.

ARANZADI IKASTOLAREN DBHKO ESKAINTZA
Aranzadi Ikastolak DBHko eskaintzari buruzko bilera informatiboa egingo du eguenean, hilaren 19an, San Martin plazako ikastetxean, 18:30ean. Gaiaren interesatutako guztiak gonbidatuta daude bilerara.

MARIAREN LAGUNDIKO IKASLEEN ZOKKETA
Mariaren Lagundiko DBHko 4. mailako ikasleek egindako zokketan 1.028 izan da saritutako zenbakia. Bi lagunendako afaria eskuratuko du irabazleak.

ODOL ATERATZEA
Bergarako Odol Emailek aditzera eman dute hurrengo odol ateratzea martxoaren 3an izango dela, Seminarioko lokalean, 18:30ean hasita.

JARDUNENAGENDA

ASTE BUKAERAKO AGENDA
Txapligu taldekoek eskulana izango dituzte bihar, zapatua, Arrizuriagan, 16:00etan. Domekan, berriz, mahai-jolasak. Oraindik ere txartela egiteko aukera dute 9-11 urteko gaztetxoek.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildidoki degia), Zurra, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoila (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

BOTAren protesta ekitaldia epaitegian

BOTA Bergarako talde antimilitaristak deituta, herriko 12 gazte epaitegiko sarreran kateatu ziren 1994ko otsailaren 7an, Gipuzkoako intsumisioen aurkako -Gustavo Abajo, Joxe Lazkano eta Miguel Albeniz tartean- epaiketaren aurka protesta egiteko. Ertzaintzak gazteak kanporatu zituen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kiribista"



Bi borobileko korapiloa, zapatei egiten zaiena. — Erroseta.

GORKA ORTEGA

ASTEKOPELIKULAK

'LOVE ACTUALLY'

ZUZENDARIA: RICHARD CURTIS. AKTOREAK: HUGH GRANT, ALAN RICKMAN, EMMA THOMPSON, LIAM NEESON.

HARIA. Gabonen atarian Londresen girotuta, komedia honek zortzi bikoteren istorioak batzen ditu. Aktore ezagun mordoa eta umore fina nagusi.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●

'LOONEY TUNES'

ZUZENDARIA: JOE DANTE. AKTOREAK: BRENDAN FRASER, JENNA ELFMAN, STEVE MARTIN.

HARIA. Warnes Brosseko marrazki bizidunak eta benetako aktoreak uztartzen dituen filma. Bugs Bunny eta Lucas haserretu egingo dira eta Lucas ahatea langabedian geratuko da. DJ Drake-ren laguntzaz diamante baten bila hasiko da, gaizkile talde bati aurre egin beharko diotelarik.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

HAUGIROA!

MINIMOA 0 °C
Astelehena, 9

MAXIMOA 23 °C
Egubakoitza, 6

ASTEKO EURIA (l/m²) 1,5 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 4	22 °C	3 °C	- l/m ²
Eguena, 5	24 °C	4 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 6	23 °C	4 °C	0,7 l/m ²
Zapatua, 7	12 °C	6 °C	0,8 l/m ²
Domeka, 8	12 °C	3 °C	- l/m ²
Astelehena, 9	13 °C	0 °C	- l/m ²
Martitzena, 10	19 °C	0 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

BERGARA Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

HIRIGINTZA/ Asteleheneko udalbatzarrean 20. arearen konpentsazio proiektuaren onarpena bozkatuko dute

Ibargarain urbanizatzeko geratzen den zatia aztergai izango dute udalbatzarrean

EDU MENDIBIL

Ibargarain egin beharreko urbanizazio lanak aztergai izango dituzte asteleheneko udalbatzarrean. Besteak beste, 96 etxebizitza eraikitzea, autobus geltokiaren kokalekua finkatzea eta Arrizuriaga parkearen handitzea egiteko dira 20. area deritzon gunean.

Hain zuzen ere, 20. areako 20-A exekuzio unitateko konpentsazio proiektuaren onarpena bozkatuko dute zinegotziek asteleheneko udalbatzarrean. Udalak eta promotoreek kolaborazio hitzarmena sinatu zuten bere garaian eta orain konpentsazio proiektua udalbatzan aztertu beharra dago; hau da, proiektuaren finantzaketa nola egingo den zehaztea. Promotore pribatuek eta Udalak eramango dute aurrera 20. areako urbanizazioa.

Ibargarain gaur egun hutsik dauden bi orubeetan (azken urteotan, Pazkoetan zezen plaza jarri izan den bi tokietan) bi etxebizitza bloke egitea zehazten da. Aipatutako bloke bakoitzak bost solairu eta 48 etxebizitza izango ditu eta bi blokeen erdian plaza bat izango da: Arregi, Toki Eder eta Ortuibar enpresak dira blokeetako bat joango den orubearen jabeak eta Bergarako Udala, berriz, bigarren blokea hartuko duen terrenoaren jabea da, gaur egun aparkalekuak hartzen duen orubekoa, hain zuzen ere. Behin proiektuaren urbanizazioa onartutakoan, bloke hori enkantera aterako du Udalak. Oraintsu Udaleko iturriek BERRIGARARI adierazitakoaren arabera, orubearen salmentarekin jasotakoa kirolgune berriko proiektura bideratuko dute.



Ibargarain hutsik diren bi orubeetan 96 etxebizitza egitea zehazten da.

*Gaur egun
Ibargarain hutsik
dauden bi orubeetan
96 etxebizitza egingo
dituzte*

AUTOBUS GELTOKIAREN KOKALEKUA
Proiektua, esan bezala, onartzeke dago, baina Udaleko iturrien arabera, lehenbailehen heldu nahi zaio 20. areako azken zatiko

*Udalaren orubearen
salmentarekin
jasotako dirua
kirolgunea
bideratuko dute*

urbanizazioari. Autobus geltokia non kokatu ere erabakitzeke dago. Hasiera batean, egingo diren etxe berrien artean jartzea zehazten zen. Hala ere, gaur egun gelto-

*Autobus geltokiaren
kokalekuaren
gainean ez da
oraindik erabakirik
hartu*

kiaren gainean bizi diren Ibargaraineko bizilagunen kezak izan dira azken hilabeteotan, eta geltokiaren kokalekuak zeresana eman dezake. Edozein modutan,

Udalak oraindik ez du horren inguruko erabakirik hartu.

ARRIZURIAGA PARKEA

Bestalde, Ibargarai eta Espoioia lotzeko bidea egingo dute 20. arean, palmondoa dagoen biribilunetik Espoioiaren hasieraraino (Mariaren Lagundiko sarreraren pareraino), hain zuzen. Lucio Arregi zenaren etxea bota egingo dute eta inguruko lur zatia Arrizuriaga parkean integratuko dute. Etxebizitza berrien ondoko plazatik Arrizuriagarako sarre-irteera egongo da.

Espainiaren erasoen kontrako sinadurak batuko ditu Batasunak

E.M.

Debagoieneko Batasunak deituta, Espainiako Estatuaren inposizioaren aurkako sinadura bilketa egingo dute aste bukaeran Bergaran. Ahalik eta herritar gehiagoren atxikimendua lortzea da helburua.

Batasuneko ordezkariak arabera, helburua zera da: Espainiako Estatuak egindakoaren kontrako 25.000 salaketa batzea, salaketa horien bidez Espainiak egindakoak kaleratzea eta ahalik eta indar handienez Espainia sala-

tzea, eta Europara eraman: "Herritarrei erantzuteko aukera eskaini nahi diegu. Milaka eta milaka herritarri eraso egin die Espainiako Estatuak, eta horiei guztiei salaketa egin ahal izateko tresna jarri nahi diegu".

SINADURAK, GENEVARA

Aste bukaeran, esan bezala, Debagoieneko herri guztietan egingo dute sinadura bilketa, Bergaran artean. Gaur, egubakoitza, iluntzean jarriko dituzte mahaiak herriko hainbat puntutan eta bihar, zapatua, eta etzi, domeka, gauza bera egingo dute Batasu-

neko herriko ordezkariak.

Bildutako salaketa guztiak Genevako Nazio Batuen Goi batzordera bideratuko dituzte. Horretarako, martxoaren 14a baino lehen ordezkari bat Genevara joango da. Giza Eskubideen batzordea Genevan elkartuko da martxoan edo apirilean, munduan giza eskubideen egoera zein den aztertzeke. Hain zuzen ere, Espainiak Euskal Herriari autodeterminazio eskubidea ukatzeke erabiltzen duen politika errepresiboa eta zapaltzailea nazioartean azaltzea da Batasunaren helburuetako bat.



Argazkian, Espainiaren erasoaren aurka azaldutako herritar talde bat.

ARTXIBOA



Mozorroek herriko kaleak alaituko dituzte Inauterietako zapatuan eta martitzenean.

ARTXIBOA

JAIK/ Bandak eta Orkestrak kontzertua eskainiko dute hilaren 20an Udal Pilotalekuan

Mozorroak, musika eta pailazoak Inauterietarako

EDU MENDIBIL

Inauterietako programaren barruan, Takolo, Pirritx eta Porrotxo pailazoak *Poxpolin Marisorgin* ikuskizuna izango da datorren domekan, otsailaren 22an, Udal Pilotalekuan, 18:00etan.

Bi pailazo emanaldi izango dira aurtien Inauterietan Udal Pilotalekuan: batetik, Bolintxe Zalaparta eta Loretsu Traketsu pailazoak *Zirika Zirkus* ikuskizuna zapatuan, hilaren 21ean, 16:30ean,

eta bestetik, Takolo, Pirritx eta Porrotx ezagunen *Poxpolin Marisorgin*, domekan, 18:00etan. Sarreak salgai daude kultur etxean, 2 eta 4 eurotan, hurrenez hurren.

Inauterietako zapatuan, buruhandi eta erraldoien kalejira izango da, 17:30ean hasita, eta ondoren Xamatx dantza taldearen saioa izango da. Gauean, berriz, Brigada Criminal eta Dragon Fly taldeek kontzertua eskainiko dute San Martin plazan, 22:30ean.

Martitzenean, bestalde, mozoorroak itzuliko dira herriko kaleetara. Musika Eskolako txaran-

ga eta Rios Samba Show talde brasildarra giroa alaitzeaz arduratuko dira arratsalde partean. Sardinaren lurperatzea 20:30ean izango da.

BANDA ETA ORKESTRA, EGUBAKOITZEAN Egubakoitzean, hilaren 20an, Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko dute Udal Pilotalekuan, 22:30ean. Programa *western* generoari dedikatuta izango da, sarreak 5 eurotan jarriko dira salgai eta dirua Saharako errefuxiatuei bideratuko diete.

LABUR

Pili Azkarateren margo erakusketa Nahikarin eta Bingen De Pedronena Gasteizen

Pili Azkarate bergararraren olio erakusketa ikusgai dago Nahikari tabernan, otsailaren 20ra arte. Azkaratek 18 olio jarri ditu ikusgai; paisaiak eta natura hilak nagusiki.

Bestalde, Bingen De Pedrok erakusketa zabaldu zuen aurreko astean Gasteizko Felisa Navarro galerian (Cercas Bajas, 2). Erakusketa otsailaren 26ra arte izango da zabalik, asteleheneetik zapatuta, 17:00etatik 21:00etara.

Bost urteko mutiko batek femurra hautsi zuen Zurraderon, istripu baten ondorioz

C.A.L. bost urteko mutikoak femurra hautsi zuen joan zen egubakoitzean, hilaren 6an, Zurraderon. Istripua 18:30ak aldera gertatu zen: Udaltzaingoak emandako informazioaren arabera, mutikoa errepidera irten zen eta auto batek harrapatu zuen. Ondorioz, femurra hautsi zuen. SOS Deiak-eko ambulantiak mutikoa Debaioeneko Eskualde Ospitalera eraman zuen.

Agustin Untzurruntzaga SOS Arrazakeriako kidea hizlari martitzenean, hilaren 17an

Bergarako Komite Internazionalistak taldeak antolatuta, atzerriartasun legearen gaineko hitzaldia egingo du Agustin Untzurruntzagak datorren martitzenean, hilaren 17an, Bergarako kultur etxean, 19:30ean.

Agustin Untzurruntzaga bergararra Gipuzkoako SOS Arrazakeria erakundeko kidea da.

Betizu Zezen Elkarteko kideek bilera egingo dute otsailaren 20an kultur etxean


Betizu Zezen Elkarteko kideek bilera egingo dute datorren egubakoitzean, otsailaren 20an, Bergarako kultur etxean, 19:30ean. Bileran, besteak beste, aurtengo Pazkoetan izango diren zezenetako ikuskizunak eta urtean zehar egingo dituzten irteerak aztertuko dituzte.

Elkarteko bazkideei ez ezik, Betizuk dei egiten die taldeko kide izan nahi duten herritarrei bileran parte hartzeko.

Marisa Zubillaga psikologoaren hitzaldia astelehenean Mariaren Lagundian

Mariaren Lagundiak antolatutako hitzaldi sortaren barruan, Marisa Zubillaga psikologoaren hitzaldia izango da astelehenean, hilaren 16an, ikus-entzunezko gelan, 18:00etan. *Txikia hazten bidean sortzen diren gorabeherak* izenburuko hitzaldia egingo du Zubillagak. Bereziki 0-6 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendutako hitzaldia izango da.

Mariaren Lagundia ikastolak gaiarekin interesatuta dauden herritarrak hitzaldian parte hartzera gonbidatzen ditu.



Informaziorako Bulegoa ireki dute Miguel Altuna institutuan

E.M.

Langile, langabe eta ikasleei zuzendutako Informazio Bulegoa zabaldu zuten eguaztenean Miguel Altuna institutuan. Bulegoan lanarekin eta heziketarekin zerikusia duen aholkularitza eskainiko da.

Ibargarai kalean, instituturako sarreraren ondoan jarritako bulegoan Jabi Arteaga, Josean Etxeberria eta Uxune Mujika egongo dira, lana eta heziketaren inguruko informazioa ematen. Langabeei zuzenduta, Jaurlaritzako Lan Sailak, INEMek eta Udalak antolatzen dituzten ikastaroen

berri emango dute. Era berean, Langai zerbitzuan zer-nolako lan eskaera dagoen ezagutzeko izango dute bulegora jotzen dutenek.

Bestalde, etengabeko heziketaren kasuan, Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten langileek aukera izango dute ikastetxeak mekanika, elektrizitatea eta administrazio adarretan duen eskaintza jasotzeko. Bulego berrian lan poltsa ere sortuko dute, ikastetxean aritutakoei lana topatzea errazteko.

Eguaztenean zabaldu zuten bulegoa astelehenean egubakoitzera egongo da zabalik, 08:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 20:00etara.

POLITIKA/Maiatzaren 25eko hauteskundeekiko hautesle erroldak behera egin du

M-14an 12.557 herritarrek izango dute boto eskubidea

E.M.

Udaleko erroldaren arabera, 12.557 herritarrek izango dute botoa emateko eskubidea martxoaren 14ko hauteskundeetan. Hilabete eskas falta da Espainiako Gorteetarako hauteskundeak izateko.

Joan zen maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan Bergarako hautesle errolda 12.797 lagunek osatzen zuten. Martxoaren 14ko Espainiako Gorteetarako hauteskudeei begira, erroldak behera egin du: 240 lagun gutxiagok eman ahal izango dute botoa martxoan. Bestalde, abstentzioa %28,5ekoa izan zen azken udal hauteskundeetan: 3.776 lagunek uko egin zioten botoa emateari.

POSTA BIDEZKO BOTOA

EAJ eta EA alderdiek posta bidez botoa emateko zerbitzua eskainiko dute: interesatuek Alkartetxera jo ahal izango dute astelehentik egubakoitzera, 11:00etatik 12:30era eta 17:30etik 19:30era. Batzokian, berriz, posta bidezko botoa tramitatzeke bulegoa 11:30etik 12:30era eta 19:30etik 21:00etara izango da zabalik aste barruan. Batasunak ere martxoaren 4ra arte izango du zabalik bulegoa Irizar 2ko Arrano zaharrean. Eguenean, hilaren 19an, hauteskudeei begira planteamendua aztergai izango du Batasunak Miguel Altunako aretoan, 19:00etan.



Martxoaren 14an izango dira Espainiako Gorteetarako hauteskundeak.

LASAGABASTER ALKARTETXEAN

Bergarako Eusko Alkartasunak antolatuta, Begoña Lasagabaster EAko diputatua hizlari izango da Alkartetxean datorren eguaztenean, hilaren 18an, 19:30ean. Lasagabasterrek esperientzia luzea

du Madrileko Diputatuen Kongresuen eta gaur egungo egoera politikoa izango du aztergai eguazteneko hitzaldian. EAk alderdiko jarraitzaileei hitzaldira joateko gonbidapena luzatu nahi die.

ARTXIBOA

FOTONOTIZIA



Edukiontziei erasoak zapatu gauean

Ezezagun batzuek edukiontzien kontrako kalteak eragin zituzten aste bukaeran. Zapaturik domekara bitarteko gauean izan ziren erasoak eta, besteak beste, Fraiskozuri, Masterreka, Matxiategi eta Zubietako edukiontzia izan ziren kaltetuak.

LABUR

Iñaki Arietaleanizbeaskoa 'Bixkai' presoaren baldintzapeko askatasuna atzera bota dute

Iñaki Arietaleanizbeaskoa *Bixkai* bergarar presoaren baldintzapeko askatasunaren kontra fiskalak jarritako helegitea onartu egin du Espainiako Audentzia Nazionalak. Ondorioz, Bixkai atxilotzeko agindua eman zuen Audentzia Nazionalak, martitzenean Askatasuna taldeak jakitera eman zuenez.

Bixkai baldintzapeko askatasunean zegoen 2002ko ekainetik, Bilboko Zaintza Epaitegiak hala erabakita. Espainiako Ministerio Fiskalak helegitea jarri zion erabaki horri.

ARRI

Industri hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tel. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34



NATURHOUSE

Nutrizioa eta Dietetika

- Dieta pertsonalizatuak
- Kotsultak doan

Leire Perez Sampedro
Biologia Zientzietan lizentziaduna eta
Dietetika eta Nutrizioan espezialista.

Simon Arrieta 3 • Tel.: 943 76 48 56 • BERGARA





SAN BLAS JAIK MURINONDON

San Blas jaien amaiera izan zen aste bukaeran Murinondo auzoan. Zapatuko mus txapelketan 23 bikotek hartu zuten parte eta irabazleak Jabi Juaristi eta Jabi Gago izan ziren, finalean Juan Jose Gabilondo eta Fernando Kapelastegiri irabazita. Domekan, berriz, San Blas Txiki egunean, mezaren ostean, Aranzadi Ikastola-Moises Aspiazu dantza taldeak saioa eskaini zuen, han bildutakoen txalo artean. Jarraian, Zelai eta Miren Urkiola harriarekin eta Ugaitz eta Aratz aizkorarekin aritu ziren. Zelaik 125

kiloko harria 15 aldiz altxatu zuen 3 minutu eta 30 segundotan eta 100 kilokoa 12 aldiz altxatu zuen minutu baten. Urkiolak, berriz, 80 kiloko harri-bolarekin 10 altxaldi egin zituen bi minutuan. Aratzen eta Ugaitzen arteko norgehiagokan, berriz, Ugaitzek irabazi zuen aizkora bertikaleko lehian. Laurak batera ere aritu ziren, aizkora eta harria tartekatuz, eta saio polita eskaini zieten Murinondora hurbildutakoei. Jaien amaiera ederra...



BERTSO AFARIA ARTATSEN

Giro ezin hobea izan zen zapatuan Artatse elkartearen egindako bertso afarian. Guztira, 100 bat lagun izan ziren Artatsen, trikitiz lagunduta, gainera. Maialen Lujanbiok eta Estitxu Izagirrek alaitu zuten afalostea bertsoekin, eta Artatsen elkartutakoei primeran pasatu zuten. Argazkian, Lujanbio eta Agirre, Bergarako Bertso Eskolako kideez inguratuta. Ezkerretik eskumara, Maialen Madariaga, Maialen Alkorta, Lujanbio, Izagirre, Ainhoa Agirreazaldegia, Irati Azkarate-Askasua, Ane Artzamendi eta Ariane Alberdi.



1956KO BERGARARREN AFARIA

Azken urteotako ohiturari eutsiz, 1956an jaiotako bergararren afaria egin zuten joan zen urtarilaren 31n. Urtero elkartzeko ohitura daukate eta aurtien ere erantzun ona izan du deialdiak: guztira 45 bat lagun izan ziren Azpeitxi jatetxean egindako afarian. Umorean ondo afaldu eta gustura asko egon ziren lagun artean. Beraz, hurrengo urtera arte!!!

MINGAINARITIRAKA



Monica
Perez

CIBERNETWORLD ORDENAGAILU GUNEKOA

Ile-apaintzailea da Monica, baina, orain, Cibernetworld-en lanean dihardu. Orain dela aste batzuk zabaldu zuten ordenagailuen gune hori. Interneten ibiltzeko, txateatzeko eta jolasteko aukera dago Cibernetworld-en.

Badira aste batzuk Cibernetworld zabaldu zenutela. Zer moduzkoa izan da hasiera?

Nik asteburuetan egiten dut lan, eta bete-bete eginda egoten da, batez ere, arratsaldeetan. Neska-mutiko mordoa etortzen da.

Ze jende joaten da, gehienbat?

Asteburuetan, umeak, gehienbat. 15 urtetik beherakoak izaten dira gehienak. Asteazkenean, gehienbat, umeak etortzen dira, baina baita jende heldua ere.

Zertara etortzen da jendea?

Umeak jolastera; joko mordoa ditugu, baina, batez ere, bat gus-tatzen zaie: terroristen aurkako joko bat. Batak bestea hil behar du joko horretan.

Neskatilek eta mutikoez jokatzeko dute?

Ez, batez ere, mutikoez; neskatilak gehiago etortzen dira txateatzera, Interneten ibiltzera...

Eta jende heldua ere jokatzera etortzen da?

Ez; Interneten zerbait topatzeko beharra duen jendea etortzen da, gehienbat, jakinena zerbaiten bila etortzen dira.

Hortaz, umeekin denbora luzea egiten duzu. Zer moduz konpontzen zara eurekin?

Ondo; noizbait eduki izan dut tira-biraren bat, baina, orokorrean, ondo moldatzen naiz.

Zure lanean, zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Ordenagailuekin lan egitea asko gustatzen zait; gutxien, umeekin sor daitezkeen tira-birak.

Gogorra da asteburu lan egitea beharra?

Ez, nik hasieratik nekien asteburu lan bat zela; gainera, horrela, asteazkenean ere lantxoren bat topatzeko aukera daukat.

Oporretarako toki on bat?

Karibea; ez dut ezagutzen, baina gustura joango nintzateke.

Eta bizi izateko?

Hezetasunik ez dagoen toki bat.

Etorkizunerako amets bat?

Kostaldean apartamentu bat erostea; toki lehor baten, adibidez, Murtzia edo Alacant aldean.

AINTZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

AITZIBER BERRAONDO

30 URTE / INGENIARIA / ZARAUTZEN BIZI DA

“Bergararekiko harremana ez dut inoiz galdu; izan ere, Bergara izango da beti nire herria”

AINTZANE IRIZAR

Orain dela zazpi bat urte joan ziren Aitziber eta familia Zarautzera bizi izatera. Aitziber gazte-txoa zenetik, hara joaten ziren uda pasatzera; azkenean, gurasoek erabaki zuten Zarautzen bizi izaten jartzea. Horrelaxe gogoratzen du Aitziberrek: “Erabaki familiarra izan zen; ahizpa gazteagoak dauzkat, eta unibertsitateak Bergaratik baino gutxiago daude, adibidez; etorkizunari begira, bizi izateko toki hobe izango zela pentsatu zuten gurasoek”.

Garai hartan, Alemanian zegoen Aitziber, Ingeniaritzako ikasketetako azkeneko ikasturtean. Itzuli zenean, gurasoak eta ahizpak Zarautzera joanda zeuden bizi izatera.

Ez zitzaion askorik kosta Zarautzera moldatzea; izan ere, esan bezala, urteak ziren hara joaten zirela uda pasatzera.

Bizimodua pixka bat aldatu zitzaion Aitziberri, baina, garai hartan, kanpoan ikasten zebilen, ez zitzaion batere zaila egin bizimodu berrira egokitzea: “Dena batera aldatu zitzaidan garai hartan: Alemaniatik itzuli nintzen, ikasketak dagoeneko bukatu nituen eta gurasoekin bizi izatera itzuli nintzen; hortaz, Zarautzera joatea ez zitzaidan gogorra egin... Aldaketa handiagoa izan zen ahizpa gazteagoendako eta gurasoendako. Ni dagoeneko ohituta nengoen Bergaratik kanpo ibiltzen”.

Gainera, lagun koadrila ere bazeukan Zarautzen Aitziberrek. 14 urte zituenetik, ekainetik irailera Zarautzen egoten ziren. Ahizpak, baina, gaztetxoak ziren hara joan zirenean, eta eurei gehiago eragin zien aldaketak: “Institutu-ean zebiltzan Zarautzera joan ginenean, eta, jakina, adin horretan zailagoa izaten da koadrila osoa herrian laga eta beste herri batera joatea”, azaldu digu Aitziberrek.

Zarautzen oso gustura dago;

“Zarautzek bi bizimodu mota dauzka: udakoa eta negukoa; negua askoz lasaiagoa da”

oso herri lasaia ei da, batez ere, neguan: “Ibilaldi politak eta lasaia egiteko aukera handiak daude, itsasoa dugu...; beste bizimodu bat da Zarautzera”, diosku Aitziberrek.


Bi bizimodu ezberdin dauzka Zarautzek, Aitziberren esanetan: udakoa eta negukoa. “Guk, hona bizi izatera etorri arte, udako Zarautz ezagutzen genuen; udan, beti jaietan egotea bezala da Zarautzen egotea. Orain, baina, gehiago baloratzen dugu negua; bertako jendeak oso ondo hartu gaitu, oso herri euskalduna da, herri lasaia; oso gustura gaude hemen”.

Azken baten, Aitziber ez da urrutira joan bizi izatera; kilometro gutxi dago Bergara eta Zarautz artean. Horrela, askotan etortzen da Bergarara eta hemengo lagunak ere sarri joaten zaizkio bisitan: “Lagunekin eta Ber-

garako jendearekin neukan harremana ez dut galdu; ahal dudan gehienetan joaten naiz Bergarara eta lagunek ere ahal duten guztia egiten dute hona etortzeko”. Orain, gainera, autobidearekin, alde handia ei dago, Aitziberren esanetan. Askotan gus-tatzen zaio Bergarara etortzea, lagunekin egoteko, amamarekin eta osaba-izebekin egoteko...: “Azken baten, Bergara da nire herria”, azaldu digu.

Etorkizunari begira, oraingoz, Zarautzen bizi izaten jarraituko duela uste du Aitziberrek. Orain dela gutxi, gainera, zarautzar batekin ezkondu zen, eta horrek ere lotu egiten du. Gainera, gurasoak, ahizpak eta lagun asko ere hantxe dauzka.

Dena dela, bere herria Bergara dela esan digu Aitziberrek behin eta berriro. Ez dauka sal-tzeko bere jaioterria.



Gracian
ARATUSTEETARAKO
OSAGARRI GUZTIAK
GEUREAN
Bidekurutzeta 6
Tel.: 943 76 10 25

GABILONDO
INMOBILIARIA
Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,
baserriak, lur sailak...
Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

GAZTELU
BURDINKI DENDA
Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

TXIRRINDULARITZA

Miren Urtzelaik irabazi du Euskal Herriko Itzuliko lehen etapako logotipo lehiaketa

Lehen etapako antolakuntza lanetan jarduteko 100 pertsonaren laguntza beharko dutela jakinarazi dute antolatzaileek

IRATI AGIRREAZALDEGI

Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko lehen etapari begira logotipo lehiaketa deitu zuen antolakuntzan diharduen herri batzordeak. Bergarako ikaste-txeetako Lehen Hezkuntzako neska-mutilek hartu dute parte eta irabazlea Aranzadiko Miren Urtzelaik izan da.

Guztira 200 lan aurkeztu dira Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko lehen etapa antolatzen diharduen herri batzordeak deitutako logotipo lehiaketara. Bergarako Lehen Hezkuntzako ikasleek hartu dute parte.

Lanak aditu talde batek aztertu ditu eta kolore eta alderdi artistikotik egokienak direnak aukeratu ondoren, herri batzordeak hartu du erabakia.

Miren Urtzelaik Aranzadi ikastolako 10 urteko neskatilaren logotipoa aukeratu dute. Antolatzaileen esanetan, "irudiak logotipo baten itxura du eta, gainera, nahiko informazio ematen du: urtea, proba bera eta herria". Hori izan da, beraz, Mirenen lana irabazletzat jotzeko arrazoia.

"Aurkeztu dituzten lanen artean baziren marrazki politak, baina logotipo itxurarik ez zutenak. Beste batzuek Bergarako gaiak erabili dituzte, baina txirrindularitzarekin inolako loturik gabek. Izan ere, zaila da bi ideiak uztartzea", esan digu herri batzordeko Julen Narbaizak.

Antolatzaileak gustura geratu dira ikasleen partetik jaso duten erantzunarekin. "Lehenengo aldia izateko lan asko aurkeztu dituzte ikasleek, eta, tartean, lan politak ere".

Txirrindularitza eta Bergara modu egokian uztartzen ditu logotipo irabazleak

Antolatzaileak gustura daude, lehen urtea izan arren lehiaketak erantzun ona jaso baitu

SARIA

Mirenek jasoko duen saria ez da nolana hiko. Euskadiko Itzuliko lehen etapan antolakuntzako auto batean jarraituko du lasterketa. Mirenek ez du erabaki oraindik zeinekin joango den, baina laguntzailerik ez zaio falta izango. "Osaba eta lehengusua oso txirrinduzaleak dira, eta ibiltzen direnak, gainera; aitari ere gustatzen zaio", esan digu Mirenek.

LAGUNTZAILEAK

Logotipoa aukeratuta badago ere, antolatzaileek jakinarazi dute laguntzaile asko beharko direla lehen etapa horretarako, 100 lagun inguru. Beraz, txirrinduzaleei edo lanerako prest daudenei dei egin nahi diete izena eman dezaten. Horretarako, Lokatza Txirrindulari Elkartera jo dezakete edo 943 76 54 26 telefono zenbakira deitu.



Miren Urtzelaik bizikleta bat marraztu du eta gurpilek 2004. urtearen bi zeroak irudikatzen dituzte.

Gipuzkoako elkartearen bilera Bergaran

Gipuzkoako Txirrindulari Elkarteak urte luzetan urteko batzarra Donostian egin ostean, azken urteetan Gipuzkoako herriren bat aukeratzen du bilera egiteko, eta aurten Bergararen txanda da. Bihar, zapatua, 11:00etan udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da bilera, eta 80 lagun inguru elkartuko dira bertan.

Gipuzkoako Txirrindulari Elkarteak Espainian lizentzia gehien dituen federazioa da, EAEko gainontzekoekin batera.

Diru kontuak izango dira hizpide biharko batzarrean, baita kirol arloan iaz egindako ekintza nagusiak eta aurtengo urterako zehaztu direnak ere.

Hasi berri den denboraldiko egutegiak eta araudiez ere egingo dute berba bertarutakoek, bai arau teknikoek eta baita lehiako legeek ere.

Horrez gainera, dokumentazioak banatzeko eta horien kontrolak pasatzeko ere aprobetxatuko dute bilera.

LABUR

Eskiatzera joateko irteerak antolatu ditu Pol-Pol taldeak otsailerako eta martxorako

Otsailaren 27tik 29ra bitartean Kataluniako Baqueira Beret eskia estaziora joateko irteera antolatu du Pol-Pol-ek. Bestalde, martxoaren 14tik 16ra bitartean izango da eskiatzera joateko irteera antolatu du. Martxoaren 12tik 14ra bitartean izango da. Interesatuak Pol-Polera jo dezakete edo 943 76 48 51 telefonora deitu argibideak jasotzeko.

Debagoieneko tenis zirkuitoaren aurtengo edizioa Bergaran hasiko da hilaren amaieran

Ibarreko kirol masterrak hastear dira. Aretxabaletan palakoan Oñatin Squashekoari eta tenis txapelketari Bergaran ekingo diote. Otsailaren 28an izango dira lehen partidua Labegarietan eta izena emateko azken eguna hilaren 25a da. Kirol Zerbitzuetako bazkideek 12 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek 15 euro. Bergaran eta gainontzeko herrietan lortutako puntuak arabera erabakiko da zein diren txapelketako finalistak.

Infantilek hiru domina igerian

Infantilen Gipuzkoako Igeriketa Txapelketan hartu zuten parte Bergara Igeri Elkarteko bost neska-mutilek. Andoainen izan ziren lehen asteburuan eta hiru domina eskuratu zituzten guztira: Mikel Labakakurrezkoa, Ana Balentziagak eta Nielka Ibar-gurenek, brontzezkoa. Jone Amasorrain eta Erik Gorostiak ere fin jardun zuten. Estilo librean, bular estiloan eta tximeleta erara egin behar izan zuten igeri askotariko luzeratan, hasi 50 metrotik eta 400 metrora arte.





OLAIA MONDRAGON

Juanina Garaiaren mutilek zapatuan, arratsaldeko lau t'erdietan, hasiko dute norgehiagoka.

FUTBOLA

Zestoako taldearen bisita jasoko du zapatuan preferenteko taldeak

Aurreko astean Hernanin berdindu ondoren (3-3), Bergara 8. tokian dago, 33 punturekin

I.A.

Etxean jokatu du aste honetan preferente mailako taldeak. Zestoakoak izango dituzte aurkari Juanina Garaiaren mutilek. Partidua zapatuan, 16:30ean, jokatu dute, Agorrosingot futbol zelaian.

Zestoako taldea sailkapeneko 15. tokian dago orain, 25 punturekin. Jokatu du partiduetatik zortzi irabazi dituzte, lau berdindu eta hamaika galdu.

Etxeko taldea, berriz, zortzigarren lekuan dago; guztira 20 taldek dihardute erregional mailan. Mahoneroek ere, zestoarrek bezalaxe, zortzi partidu irabazi dituzte denboraldi honetan; galdutakoak, aldiz, besteak baino gutxiago izan dira: sei, hain zuzen ere; eta berdindu dituztenak, berriz, zortzi.

Azken jardunaldian Hernanin izan zuen aurkari Bergarak eta hiruak berdinketa lortu zuten kanpoan.

NORGEHIAGOKA ZAILA

Zapatuko partidua orain artekoak bezala zaila izango da Juanina Garai entrenatzailearen esanetan: "Zestoako taldea etxeko zelaian ondo moldatzen da, baina Agorrosinen aukera gehiago izango dugula uste dut".

Jokalari gehienak zapaturako gertu izango dira. Inaki Muxika min hartuta egon bada ere, baliteke Zestoaren kontra jokatzeko moduan egotea. Bestalde, Markel Egaña, atezaina eta Aritz Agirre oraindik lesionatuta daude.

Denboraldia nahiko irregular doala eta hasieran jarritako helburuak ez direla bete esan digu Garaik. Hala ere, aldatzen eta hobetzen saiatuko dira.

HIRU PARTIDU GEHIAGO AGORROSINEN

Lehen mailako infantilek Trintxerperen aurka jokatu dute zapatuan Ipintzan, 10:30ean. 12:00etan, berriz, ohorezko mailako gazteek Hondarribia izango dute aurrez aurre. Domekan, bigarren mailako kadeteek, zestoarrek neurtuko dituzte indarrak, 11:00etan.

Gainontzeko ekipoek kanpoan jardungo dute: erregionalekoek Ostadarren kontra, lehen mailako gazteek Zestoaren aurka, lehen mailako kadeteek Allerrurekin aurrez aurre, eta nesken taldeek, berriz, Azkoitian eta Intxaurren jokatu dute.

Azken jardunaldian, erregionalekoak, lehen mailako gazteak, kadeteak eta neskek garaile atera ziren. Aipatzekoa da, gainera, kadeteek Pasaiakoen aurkako partiduan lortutako gol zaparra da: 15-0 irabazi zuen Bergarak.

Gazteek eskubaloi partidu garrantzitsua Aloñaren aurka

I.A.

Azken jardunaldian partidu gehienak galdu egin zituzten herriko eskubaloi taldeek. Aste honetan emaitza horiei buelta eman eta sailkapenean gora egiten saiatuko dira jokalariek guztiak.

Gazteen taldeak partidu oso garrantzitsua jokatu du domekan, kiroldegian, 12:30ean. Oñatiko Aloña taldekoak izango dituzte aurrez aurre bergararrek.

Bergarako taldea sailkapen orokorrean hirugarren tokian dago orain; Oñatikoa, berriz, laugarrenean. Oñatin gol bategatik galdu zuten partidua Bergarakoek; beraz, orain bi goleko diferentziarekin irabazi beharko lukete norgehiagoka hirugarren postua ziurtatu nahi badute, behintzat.

Horretarako, aurreko partiduan bezain fin jardun beharko dute Josetxo Muniategiren mutilek. Izan ere, Arrasateren aurka 26-16 egin zuten.

Entrenatzaileak zera esan digu: "Ekipoa ongi ikusten dut eta, gainera, norgehiagoka honetarako gogoz. Joaneko partidua galdu egin genuen Oñatin eta orain, jokalariek ez daude berri-


ro galtzeko prest".

Gazteen taldeak ez du zorte handirik izan aurtengo denboraldian, jokalarien lesioak direla eta. Muniategiren zenbait mutilek min hartuta egon direnez, hiru partidu galdu dituzte. Hala ere, horiek dagoeneko sendatu dira eta datozen partiduetan ahalegina egingo dute irabazteko.

Azken jardunaldian gazteen taldea izan zen irabazi zuen Bergarako talde bakarra. Nesken senior mailako taldeak berdindu egin zuen (16-16) Urdaibairen kontra. Gainontzekoek, berriz, galdu egin zuten; senior mailako mutilek 30-43 Ereintzaren aurka; kadete mailako neskek 23-14 Bera-Beraren kontra; eta kadete mailako mutilek 22-16 Arrasatekoen kontra.

KADETE MAILAKO NESKAK

Partidu garrantzitsua jokatu dute kadete mailako neskek. Oihana Garmendiak gidatzen duen taldeak sailkapenean euren aurreko postuan dagoen Zarauzko taldea izango du aurkari domekan, 10:45ean, kiroldegian. Aurreko norgehiagoka ahaztu eta buru-belarri jardun beharko dute sailkapenean gora egiteko.



Lanbide Heziketako ikasketak hasteko edo bukatzeko doako eskaintza Bergaran

ESKAITZA PARTZIALA - ERDI MAILAKO ZIKLOAK

ZIKLOAK:

- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Mekanizazioa

LANBIDE MODULOAK:

- Barneko instalazio elektrikoak
- FM makinaren prestaketa eta programazioa

NORENTZAKO:

Pertsona helduentzako. Heziketa ziklo osoa era malguan ikasteko modua eskaintzen dugu, eta ikaskuntza euren beharretara egokitu.

BALDINTZAK:

- Heziketa Zikloak ikasteko beharrezkoa den titulua izatea (Bigarren mailako Hezikuntza graduatua).
- 21 urte baino gehiago izatea edo gutxienez bi urteko lan esperientzia duela egiaztatzea.

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO IKASTAROKAK:

Norentzako:

Heziketa Zikloak egiteko sarrera baldintzak betetzen ez dutenen tzat, eta Lanbide Heziketa ikasi nahi dutenentzat.

DATAK:

Izenematea: Otsailaren 27ra arte
Hasiera: Martxoaren 1ean

ORDUTEGIA:

Goizez edo arratsaldez, ikasleen arabera

Ibargarai 1 • Tel.: 943 76 24 91 / 943 76 38 40 Faxa: 943 76 38 41
e-maila: imaltuna@sarenet.es • www.imaltuna.com

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

- 16:00: Fit Automocion-De Resaka. Bedarreta
- 17:00: Kalaveras-Bar Bedarreta. D. Pafarru
- 18:00: Cosa Nostra-Dedo Pafarru. Kalaveras

DOMEKAN, BARRUAN

- 16:00: P.D.S.-S.D.T.N.T. Irubide
- 17:00: Agirrebeña-Irubide. A Ze Flaxa
- 18:00: A Ze Flaxac-Pagomendi. Egurre
- 19:00: Egurre-T.M.T. Pagomendi
- 20:00: Teatek-Bar Canalejas. T.M.T.

DOMEKAN, KANPOAN

- 09:30: Txipiron-Vervenir. Errotagain
- 10:30: Errotagain-K. Piperrak. Txipiron
- 11:30: Torrekua-Argandolas. Artusamak
- 12:30: Bar Ganbara-Artusamak. Argandolas

LITERATURA

Modesto Arrieta zarauztarra izan da Amodiozko Gutunen Lehiaketako irabazlea

Uxue Alberdi elgoibartarrak bigarren saria eskuratu du, Elena Laka izan da herriko onena eta Zigor Agirre debarrak irabazi du irakurle gazteen saria

EDU MENDIBIL

Modesto Arrieta 54 urteko zarauztarrak eskuratu du Amodiozko Gutunen XII. Berrigara Lehiaketako lehen saria. Iaz bezala, Uxue Alberdi elgoibartarrak eraman du bigarren saria. Herriko onena, berriz, Elena Laka izan da eta gazteen saria Zigor Agirrerendako izan da.

Aurtengo lehiaketan 111 gutun jaso dira. Itxaro Borda eta Karlos Linazasoro idazleek, Nerea Elustondo bertsolariak eta Iñaki Serrano iazko irabazleak osatu dute epaimahaia. Astelehenan eman zuten aditzera erabakia: saritutako lanek eta baita finalistenek ere benetan maila bikaina dute erakutsi dute.

SMS BIDEZKO MEZUAK

SMS bidezko maitasun mezuen lehiaketa Maialen Etxeberria iruindarrak irabazi du. Poltsikoko telefonotik bidaltzen diren mezuen lehiaketaren bigarren ekitaldian 33 mezu jaso dira.

SARI BANAKETA, BIHAR

Sari banaketa ekitaldia bihar, San Valentin eguna, izango da, Zabalotegiko aretoan, 19:00etan. Irabazleek gutunak irakurriko dituzte eta ondoren, Txuma Murugarrenen emanaldia izango da.

Elena Lakaren gutuna

Maittia:

Zelako sustua gaur goizian! Lanera nentorrela, Deskarga igotzen, oraindik ilun zeuala, erroberek izotz plaka bat zapaldu, eta kotxia esiak egiten hasi da. Bolantiak ez zoztan erantzuten, kotxia bere kabuz, neri kasurik egitteke. Lehenengo eskumara, gero ezkerreko hesiaren kontra, makinia bakarrik zoian. Zenbat segundu pasatuko nittuen hola? Hiru? Bost? Ideiarik bez. Baina neri mundu bat iruditu jaten momentu horretan, burua lasaittasun arraro moduko batekin bete jat. Zain geratu naiz. Pentsatu dot: orain bazter bat joko dot, gero bestea, trabestuta geratuko naiz erdi-erdixan, beste aldetik kamioia etorri, joko nau, eta kitto, honainotxe neuriak. Oker nenbilen nonbait, eta bazterra jo ostian, kotxia zuzenian arekan geratu da. Benetan geldi zeuala konprobatu dotenian eta ni oindio be mundu honetakoa nintzala egiaztatu dotenian, kotxetik urten eta negarrez hasi naiz.



Amodiozko Gutunen Lehiaketako sari banaketa ekitaldia izango da bihar, zapatua, Zabalotegin. Argazkian, iazko irabazleak.

Eta badakizu zer pentsatu doten lasaittasunezko momentu arraro horretan, neri amaibakua begittandu jatena? Ruperren abestia etorri jat burura: nor da gogoan daukazuna, nor daaaaa... Ba nik zeu zeuzkadan gogoan. Iruditu jat alkarrekin bizi izandako denboria laburregia izan dala, gauza asko egitteke dauzkagula. Zure irribarria, zure usaina, zure gorputzaren epeltasuna gutxiegi gozatu dittudala pentsatu jat. Zure ondoan

gutxiegitan lo egin dudala iruditu jat. Denboria, lastimia, ugerra dala pentsatu dot, eta eskua emandako aldiak gutxi begittandu jataz. Eta neuriak egitear zeuala sentittu dotenian, tristura itzelez itxi ditut begixak pentsatzen zelako penia emoten zoztan zurekin gehixago ez egotiak.

Zorionez sustua baino ez da izan, bizitzak batzuetan ematen doskun abisu txiki bat besterik ez. Gogorarazi dosta behin-behingoa baino ez dala guria, denbora luzia izanda be

beti izango dela laburregi. Eta zurekin bizittakuak behin eta berriro errepikatu nahi dittudala, zurekin gehixago eta hobeto nahi dotela, zeu izan nahi zaittudala gogoan... Berriro be Ruper burura: zaindu maite duzun hori... Eskerrik asko laztana, tartian neurekin zagozelako, bittartian eskutik oratuta naukazu lako.

P.D. Akordatu lanetik bueltan labadararako jaboia, olioia eta azukarra erostiaz.

Candendo eta Aramendiren organo kontzertua zapatuan San Pedron

E.M.

Oscar Candendo eta Loreto Aramendi organo jotzaileek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, San Pedron, 20:00etan. Biharko kontzertuarekin Organo Erromantikoaren aurtengo zikloa amaituko da.

Oscar Candendo eta Loreto Aramendik lau eskutara joko dute San Pedroko organoa. Candendo Antzuolan jaio zen, 1971ko urrian. Umetan Donostiara joan zen bizi izatera. Baionako eta Paueko Kontserbatorioetan ikasi zuen organoa Bernadette Carraurekin eta Jesus Martin Mororekin, hurrenez hurren, eta Goi Mailan Urrezko Domina lortu zuen. Gero, Frantziako Tolosako Goi Mailako Musika Ikasketa Eskolan jarraitu zuen ikasten. Han, Michel Bouvard eta Jan Willem Jansen irakasle iraukorkor izan zituen. Bartzelonan eta Stuttgarten osatu

zituen ikasketak.

Hainbat sari lortu ditu: 1992an, lehen saria lortu zuen Sevillan, Gazte Musikarien Lehiaketa Iraunkorrean. Hurrengo urtean, *Andrés Segovia y J.M. Ruiz Morales* saria eskuratu zuen Santiagoko Nazioarteko Ikastaro Unibertsitarioan.

Organo, piano eta klabinbalo-espezialitateetako eta ganbera-musikako goi mailako irakasle tituluak ditu. Gaur egun, Espainiako Musika doktoretza

programa egiten ari da, Valladoliden. Era berean, irakasle dabil Kataluniako Goi Mailako Musika Eskolan.

Loreto Aramendi oriotarrak, berriz, piano eta klabezin ikasketak egin zituen Donostian, Parisen eta Bartzelonan. 1995ean organoa ikasten hasi zen Baionako Kontserbatorioan, 2000. urtean ganbera-musikako goi mailako titulua eskuratu zuen eta 2001ean Lyongo Kontserbatorioan sartu zen ikasketekin jarraitzeko.

Zapatuko programa

Organorako lau eskuko fantasia opus 35 A.F. Hesse
CantabileC.Franck
Preludio eta fuga, sol mBrahms
Carrillon de WestminsterVierne
'Veni Creator', tema eta bariazioak .M. Durufle
Sonata opus 30, lau eskuko organorako G. Merkel

KULTURAPILULAK

Los Suaves zapatuan Jam-en eta Sick of It All taldea beste bi talderekin domekan

Los Suaves taldeak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan. Talde galiziarrek *Si yo fuera Dios* diskoa aurkeztuko du. Sarrerak 15 eurotan (aurrez) eta 18 eurotan (txartaldegian). Domekan, berriz, Sick of It All, Most Precious Blood eta Bleeding Through taldeek joko dute Jam-en, 20:00etan. Sarrerak 15 eta 18 eurotan.

Juan Moreno imitatzaillearen 'Facundo y Cia' ikuskizuna zapatu gauerdian Nahikarin

Juan Moreno *Moito*-ren imitazio ikuskizuna izango da bihar, zapatua, Masterrekako Nahikari tabernan, gauerdian. *Moito* errenteriarra da eta *Facundo y Cia* komedia musikala eskainiko du Nahikarin. 40 bat pertsonaia inguru imitatzen ditu *Moito*-k.

Pazkoetan Bideberrin egingo diren musika jaialdiak antolatzeke bilera hilaren 20an

Pazkoetan Bideberrin egingo diren rock jaialdiak antolatzeke bilera egingo da datorren egubakoitzean, hilaren 20an, kultura etxean, 17:00etan. Gaiarekin interesatutako guztiak bileran parte hartuzera gonbidatuta daude.



Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 8. alia

IEPA LAGUNOK! URREZKO ARAUAK

Kaixo neska-mutillak!!


Hementxe naukazue berriro be zuekin jolasian egitteko gertu. Oso ondo pasatzen dotenez, hemendik aurrera astero egongo naiz zuekin. Erregaluak hillian behin izango dira eta argi ibilli! Urte amaieran, Olentzero datorrenian, hemendik aurrera irtengo diren ale gehixenak erakusten badostazue **SORPRESA** ikusgarriak edukiko dittuzue.



- Aratustietan zela mozorrotu bihar dozue?
- Gu futbolista jantziko gara.

- ~~Aratustietan zerena juañ bihar dozue?~~
- ~~Gu goiaz de futbolista.~~

GURUTZEGRAMIA



Goitik behera:

- 1.- Aratustietan jatten dogun jantzixa.
- 2.- Bergaran aratustietako martitzenian herriko plazan erretzen dan itsasoko animalixa bat.
- 3.- Urtiak dauzkan hillabete kopurua.
- 4.- Gipuzkoako hiriburua.
- 5.- Aratustiak oso famatuak diren Gipuzkoako herrixetako bat.

Ezkerretik eskumara:

- 6.- Bergaratik pasatzen dan errexia.
- 7.- Aratustietan jaten dittugun postre gozuak.
- 8.- Aurten aratustiak ospatuko diren hillabetia.
- 9.- Bergarako plaza nagusixaren izena.

Oraingo honetan erregalua irabazteko ez dozue hillabete itxoin biharko, ale honexekin be erregalu bat lortu ahal izango dozue eta. Horretarako, ikastetxian banatu dotsuen erantzun-orrixa martitzen goizerako zuen ikastetxeko idazkaritzan laga biharko dozue eta erregaluen zozketan sartuko zarete. Suerte danondako!!

TORRADAK

Egun gutxi falta da aratustiak aillegatzeko eta jai honetako postre ohixkuenak torrarako dira. Oso erraza da jaki hau gertatzia. Eskatu laguntza aitta eta amari eta jarraitu ondorengo pausuak:



1.- Ogixa xerratan ebagi. Xerrak ez daittezelako oso mehiak izan.

2.- Ontzi baten esne berua azukre pixka batekin nahastu eta aurretik ebagittako ogi xerrak esnetatik pasatu.

3.- Beste ontzi baten arrautza irabiatua gertu eduki eta esnetatik etaratako ogi xerrak arrautzetatik pasatu.

4.- Arrautza irabiatuaren ontzittik etara eta zartagiñian buelta batzuk emon.

5.- Eginda darella antzemoten dozunian zartagiñetik etara eta azukre pixka bat bota gaiñera.

KOMIKIXA



Zeiñena da mermelada hori?

Erdixa neria eta beste erdixa anaiarena.



Emongo dostazu zuretik pixka bat?



Nahi bai, baiña ezin dot, neria ontzixaren barren-barrenian dagona da eta.




ZAHARRAKBERRI

Informatikan murgiltzeko aukera izango dute aurten ere San Joxepeko bazkideek

E.M.

Astlehenean, aurtengo lehen hiruhilabeteko informatika ikastaroak jarri zituzten abian erretiratuen egoitzan. Ikastaroak 14-24 ordu bitartekoak dira eta martxoaren erdialdean bukatuko dira.

Jokin Espinosa 34 urteko arrasatearra dabil irakasle lanetan. Espinosak zera esan digu ikasleentz gainean: "Motibazio handiz etortzen dira. Informatikan jarduteko ez daukate inolako beldurrik, eta hori da politena, gauza berriak ikasteko duten interesa. Badira ordenagailuarekin primeran moldatzen direnak. Besteak beste, Interneten nabigatzen, argazkiak tratatzen eta testuak editatzen ikasteko aukera izango dute". Edizioa eta argazkilaritzako ikastaroan bederatzi lagunek dihardute, Internetekoan hamar lagun dira, informatika hasiera ikastaroan beste hamar, eta, azkenik, Word eta argazkilaritza uztartzen dituen ikastarorako hamabi lagunek eman dute izena.



Interneteko ikastaroan hamar lagunek eman dute izena. Astlehenean hasi zituzten eskolak.

IRAKASLE LANETAN

Erretiratuen egoitzako informatika gela 2000ko maiatzean jarri zuten abian. Orduetik hona maki-

na bat ikastaro antolatu dituzte. Ikasle izatetik irakasle izatera pasatu denik ere bada. Izarbidetik antolatzen dituen ekintza sozia-

len barruan, etorkinendako informatika eskolak ere egoten dira. San Joxepeko hamar bat boluntario ari dira irakasle lanetan.



GLORIA LARRAÑAGA
Etxean orain dela hiru urtetik daukagu ordenagailua. Poliki-poliki bagoaz ikasten. Oraintsu Kanariar Uharteetan izan gara eta familiarekin komunikatzeko posta elektronikoa erabili dugu. Oso ondo dago.



MANUEL MORENO
Lanean nenbilenean ez nuen ordenagailurik erabiltzen, baina gustuko dut. Etxean Excel eta Word programekin jarduten dut gehien. Interneteko konexioa merkeagoa izango balitz...



JOSE ANTONIO MENDIKUTE
Iaz etorri nintzen lehenengoz ikastaroetara, eta oso interesgarria iruditzen zait. Kontua zera da: geldirik ez egotea, burua nagi ez dadin. Excel, posta, marraztu egiten dut... Etxean badaukat ordenagailua.



Logroñora irteera hilaren 27an

San Joxepe elkarteak otsailaren 27an Logroñora joateko irteera antolatu du. Irteera 08:30ean izango da eta bisitaldi gidatua egingo dute: Logroñoeko katedrala eta alde zaharra ikusiko dituzte. Horren ondoren, Biasteriko jatetxe baten bazkalduko dute eta arratsaldean Haro bisitatu dute. Iluntzean itzuliko dira Bergarara. Izenematea (25 euro) erretiratuen egoitzan egin daiteke. Argibideak bertan edo 943 76 30 09 telefono zenbakian.



OREKA

PSIKOLOGIA

FAMILIAKO, BAKARKAKO
ETA BIKOTEKO TERAPIA.

- Harremanetarako zailtasunak: bikotean, familian eta taldean.
- Portaera arazoak
- Eskola-porrota
- Antsietate, depresio eta elikadura arazoak.

Miriam Mujika Tel.: 676 617 055
Ainhoa Basurko Tel.: 615 703 725
AURREERA ERAIKINA
Urtzaille 1 solairua, EIBAR

OGIZUN

koop. elk.


okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

BONOFOTOA



Ze plazatan dago ezkerreko iturria eta ze elkartetan eskumakoa?

MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

BERGARAROSPETSUAK

Justo Garate (eta 3)

KOLDO PEREIRA

Thoreau filosofoaren, Humboldt filologoaren eta Goethe poeta handiaren lanak itzuli zituen Garatek. Europako eta Ameriketako 30 akademia eta zientzia elkarte baino gehiagoko kide izan zen. Argentina ederki ulertu eta barneratu zuen, bere bigarren aberritzat hartzeraino. Hala ere, Bergara bihotzean izan zuen beti: Bergarako toponimo asko eta asko aztertu zituen eta historiari buruzko azterketetan ere hartu zuen hizpide Bergara, eta Errege Seminarioak XVIII. mendearen amaieran egindako aurkikuntza zientifikoez mintzatu zen luze-zabal, gertakari historikotzat baitzituen. Bergararentzat zuen azken egitasmoa Kulturaren Hiri titulua lortzea zen, gure kulturaren oparotasunak merezi baitzuen izendapen hori.

Bergarako Udalak 1987an oroitza-penezko plaka jarri zuen bere jaiotetxean eta 1992an Justo Garate Beka sortu zuen. 1993an argitaratu zuen Garate-ren azken lana: *Un crítico en las Quimbambas*. 1994ko uztailaren 2an hil zen, Mendozan, Argentinan. Handik gutxira Udalak herriko seme kuttun izendatu zuen eta plaza bati haren izena ematea erabaki zuen.


Begararentzat zuen azken egitasmoa Kulturaren Hiri titulua lortzea zen



Justo Garate plaza.

GALDEDEBALDE

- | | | |
|--|---|--|
| <p>1.
Nola du izena Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoan azken ikuskizunak?</p> <p>A/ Zirika Zirkus.
B/ Poxpolin Marisorgin.
C/ Zirika eta Oihuka.</p> | <p>2.
Zeinek irabazi du Euskal Herriko Itzulirako Bergaran antolatu den logotipo lehiaketa?</p> <p>A/ Miren Urzelaik.
B/ Peio Larrañagak.
C/ Martin Garciak.</p> | <p>3.
Non jaiotakoa da Oscar Candendo organo jotzailea?</p> <p>A/ Orion.
B/ Aramaion.
C/ Antzuolan.</p> |
|--|---|--|



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

AINHOA ETXEBERRIArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Ainhoa!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Pagomendi** / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE -1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

La Española oliba-olioa

0,4 °, litro bat

2,69 €

448 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.


Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

GARRAIOAK ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak



BERGARA
Amaia Urkia
Otsailaren 12an, 13urte.
Urte askotarako!
Lagunak.



BERGARA
Alaitz Jainaga
Otsailaren 7an, 19urte.
Urte askotarako!
Berak dakien bat.



BERGARA
Maria Agirrezabal
Otsailaren 8an, 6urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aritz Oiarzabal
Otsailaren 13an, 6urte.
Urte askotarako!
Nora, Aroa, era Ekhi.



BERGARA
Nora Casquero
Otsailaren 15an, 7urte.
Urte askotarako!
Aritz, Aroa eta Ekhi.



BERGARA
Izar Odriozola
Otsailaren 9an, 5urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Miren Ignacio
Otsailaren 9n, 7urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Beñat Rezusta
Otsailaren 13an, 11urte.
Urte askotarako!
Etxekoak bereziki Haritz.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33 **Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara **Elgeta:** Erosle-Baltxongua

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAn agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

GESTORIAK

EGUREN

Irala 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).

943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA

Artekalea 1. 943 76 03 50

TBG AHOLKULARITZA

Matxiategi 36. 943 76 90 83

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

MILAGROS LARRAÑAGA

Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 76 10 81

ANA MOZOS

San Pedro 6. 943 76 45 52

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

Zurradero 4. 943 76 53 53

ARKITEKTUAK

JON MUNIATEGIANDIKOETXEA

Barrenkalea 22. 687 73 75 67

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko otsailaren 13a / 189. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Gaztetxea egin nahi dute Gazte Asanbladakoek

AINZANE IRIZAR

Behin-behineko gaztetxea egin nahi dute Gazte Asanbladako kideek. Udalaren lehentasuna, baina, behin betikoa izango den gaztetxearen alde egitea da. Izan ere, Udaleko arduradunen esanetan, ez dago denerako adina diru eta lehentasunak zehaztu behar izan dituzte.

Orain dela pare bat aste egin zuten batzarra Antzuolako Gazte Asanbladako kideek eta Udaleko arduradunek. AGAko kideek eskatu zuten batzar hori egitea, gaztetxeari dagokionez, Udalak ze asmo dituen jakiteko.

AGA-KOAK EZ DAUDE KONFORME

Gazte Asanbladako kideek azaldu digutenez, "minduta" daude Udalaren jarrerarekin, "ez dutelako arazoa konpontzerik nahi". Zera azaldu digute: "Bost urte baino gehiago pasatuko dira behin betiko gaztetxea egin orduko; baina gazteen arazoa orain eta hemen dugu eta horri irtenbidea eman behar zaio". Ildo horretatik, aurreko egubakoitzean egin dako batzar orokorrean erabaki zuten behin-behineko gaztetxea-



JOSETXO ARANTZABAL

Egubakoitz arratsaldean batzar orokorra egin zuen AGAK.

ren alde egitea; proiektua egiten ere laster hasiko dira gazteak.

Udaleko arduradunek, berriz, gazteekin berba egiten jarraitzeko prest daudela jakinarazi digu-

te; bestalde, eta Udalak denerako adina diru ez daukanez, behin betikoa izango den gaztetxeari lehentasuna emango diotela adierazi digute.

OSOKO BILKURA

Udal Etxegintzan, ordezkari berriak

Aurreko egubakoitzean, hilak 6, egin zuen osoko bilkura udalbatzararak. Hantxe, besteak beste, Antzuola Udal Etxegintzako Udalaren ordezkari berriak izendatu zituzten. Bestalde, euskal presoaren eskubideen aldeko mozioa ere aztertu zuten, baina hori ez zuten onartu.

Maiatzeko hauteskundearen ondorioz udalbatzarra aldatu egin denez, Antzuola Udal Etxegintzan Udalaren ordezkariak ere aldatu beharra zegoen. Horrela, aurreko asteko osoko bilkuran erabaki zuen Udalak zeintzuk izango diren ordezkari berriak; honako hauek izango dira, hain zuzen ere: estatutuetan jasotzen den moduan, Jose Angel Zabalo alkatea izango da Antzuola Udal Etxegintzako presidente berria; Udalaren beste bi ordezkariak, berriz, Dina Muxika eta Jose Ignazio Beltran zinegotziak izango dira.

Horrekin batera, Mireia Unamuno, Juan Jose Azkarate eta Juan Benitez aurreko udalbatzarreko alkatea eta zinegotziak Antzuola Udal Etxegintzan zituzten karguetatik kentzeko erabakia ere hartu zuten.

PRESOEN GAINEKO MOZIOA, ATZERA
Bestalde, euskal preso politikoaren gaineko mozio bat aztertu zuen udalbatzararak. Bi herritarrek aurkeztu zuten mozio hori.

EAJ-EAko zinegotzien absentsioarekin, eta PSE-EEko zinegotziaren aurkako botoarekin, bertan behera geratu zen mozioa.

Bost puntu zituen mozioak eta zera proposatzen zion Udalari: batetik, euskal presoek jasaten duten eskubide ukazioa dela eta, presoek eskubide horien defentsan daramaten borrokarikina bat egitea; bestetik, euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatzea Frantziako eta Espainiako gobernuei; hirugarrenik, Euskal Herriak askatasunerako bidean irekitako prozesuan parte hartzeko, euskal presoak Euskal Herrian egotea ezinbestekoa dela aldarrikatzea; laugarren puntuan, dispertsioak sortutako eskubide urraketen ondorioz, senitarteko eta lagunei sortzen zaizkien kalte ekonomikoetara egiteko dirulaguntzak ematea eta, azkenik, presoaren egoeraren berri zabaldu eta dagozkien eskubide politikoaren defentsan parte hartzera dei egitea herritarrei.



Senegaldik Antzuolara

Senegalen misiolari diharduen Montserrat Dauso moja kataluniarra herrian izan dugu. Azkeneko urteotan hainbat antzuolar egon da Senegalgo Casamance eskualdean, eta Anelkarrek behin baino gehiagotan batu izan du dirua hara bidaltzeko.

Montserrat Antzuola eta antzuolarrak ezagutzeko gogoz zegoen; bizpahiru egun egin ditu herrian. Astelehenean, afaria egin zuen Anelkarkoekin Danok Bat elkartean, eta Senegalgo kontuak izan zituzten hizpide./A.I.

LABUR


Abesbatzak 750 euro batu zituen Santa Ageda bezperan, Anelkarrendako

Aurreko asteko eguaztenean, Santa Ageda bezperan, hain justu, Antzuolako Abesbatza kantura irten zen, urtero bezala. Koadrila polita elkartu zen, eta herriko kaleetan zehar ibili ziren, Santa Ageda eskean.

Egun horretan herritarren artean batutako diru guztia Anelkar Antzuolako Elkartasun Taldeari eman diote aurten, euren proiektuetarako. Guztira, 750 euro batu zituzten.

Potxin eta Patxin pailazoen emanaldia izango dugu datorren asteko egubakoitzean

Datorren asteko egubakoitzean, hilak 20, Potxin eta Patxin pailazoen emanaldia izango dugu, 17:00etan, udal pilotalekuan. Hurrengo egunean, berriz, zapatua, umeendako beste ekitaldi bat antolatuko du Udal Liburutegiak. Antonino Apreta ipuin kontaketa saioa izango dute neska-mutikoei, Goringo taldearen eskutik. 18:00etan izango da saio hori, liburutegian bertan.



Diputaziokoak Elay enpresa bisitatzeko egon ziren

Aurreko asteko egubakoitzean, hilak 6, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak egon ziren Elay enpresa bisitatzeko. 2003ko Antton Abadia saria eskuratu zuen Elayk, eta hori dela eta, bertatik bertara ezagutu nahi izan dute enpresa Diputazioko arduradunek.

Antton Abadia sariaren banaketa ekitaldirako Jon Maia bertsolariak Elayri eskainitako bertsoa koadro baten sartuta ekarri zuten, operari, Diputazioko ordezkariak.

Hain zuzen ere, Gizarte eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Fernando Tapia, Euskara Normalizaziorako zuzendari nagusi Xabier Huitzi eta sail horretako zerbitzaburu Gotzon Egia izan ziren Elayn bisitari. /A.I.

LABUR

Olalde elkarteko bazkideek 25. urteurrena ospatuko dute otsailaren 28an, zapatua

Otsailaren 24an beteko dira 25 urte Olalde elkartea sortu zutela. 1979. urtean, egun horretan, egin zituzten elkartea inauguratzeko ekitaldiak. Urteurren hori ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte datorren otsailaren 28rako Olalde elkarteko bazkideek. Goiz osoan zehar salda, pintxoak eta ardoa banatuko dizkiete elkartera joaten diren herritar guztiei. Ondoren, kalejira egingo dute trikitilariekin. Eguerdian, berriz, pilota partiduak jokatu dira Udal Pilotalekuan. Jarraian, Olaldeko bazkideek eta trikitilariak bazkaria egingo dute.

Espainiari ezetz esango diote hainbat herritarrek bihar, zapatua, Zurrategin

Espainiaren aldetik erasoak jasan dituzten hainbat herritarrek jendaurreko agerraldia egingo dute bihar, zapatua, 12:30ean, Zurrategiko plazan. Martxoaren 14ko hauteskundeei begira, hauteskunde horiek Espainiari ezetz esateko aprobetxatu behar ditugula azalduko dute hantxe. Bestalde, 12:00etatik 13:30era, Espainiako Estatuari salaketa jartzeko agiriak jarriko dituzte herritarren eskura. Salaketa horien oinarria da estatuak Euskal Herria ukatzen duela eta euskaldunon eskubideak ez dituela onartzen.

Arrolak Arantzazu auzoa ezagutzeko ibilaldia antolatu du etzirako, domeka

Etzi, domeka, Oñatiko Arantzazu auzoa ezagutzeko ibilaldia egingo dute Arrolakoek; 09:00etan irtengo dira plazatik. Aizkirri baserrian hasiko dute ibilaldia; handik, Arrola baserrietik pasatu eta Zurkutz mendira (1.182 metro) igoko dira. Araba eta Gipuzkoa lotzen zituen mandabidea ikusiko dute hortxe. Garai baten, gurutzea zegoen mendi horretan; Arrolakoek egurrezko gurutze berria jarriko dute. Ondoren, salda eta txorizoa hartu eta Arantzazura jaitsiko dira. Aizkirri baserrian jaio eta gaur egun Antzuolan bizi den Jesus Odriozola Aizkirri-ri esker antolatu dute ibilaldia Arrolakoek.

HERRITARREN HITZA / Iraia Gabilondo · Ikaslea

Egia absolutua, bai ote?

Badira historian zehar egia absolututzat hartu ditugun gezur biribilak. Agian, egungo ikuspuntutik begiraturaz, nabariena emakumearen egoerari buruzkoa izan litekeela pentsatzen dut. Orain dela gutxi arte emakumearen zeregin nagusia eta bakarra gizonaren beharrianak asetzea beste-rik ez da izan. Emakumezkoak ez omen zuen gizakumeak betetzen zituen eginbeharrak egiteko gaitasunik. Hainbat urte eta mendeetan inork ez du egoera tamalgarri hau zalantzan jarri, horrela izan behar baitzuen.

Hau abiapuntutzat hartuta,

neure buruari galdetzen diot honen zergatia zein ote den. Esaten digutena inongo zalantza izpirik sortu gabe irensten dugunaren ideia da niretzat sendoena. Telebista edo irratia piztu, egunkari bat zabaldu eta bertako informazioa beste-rik gabe sinisten dugu. Ez dugu idatzitakoa, ikusitakoa edo entzundakoa buruzko inongo zalantzarik, eta egiazat



"Esaten digutena inongo zalantza izpirik sortu gabe irensten dugu"

hartzen ditugu. Gure ustea besteen esku uzten dugu, besteek gu baino gehiago dakitelako. Baina, ba al zekien zerbait emakumezko ezerezten zuenak? Garai hartako norbaitek pentsatu al zuen hori gezurra izan zitekeenik?

Pentsatzen jarri behar hutsak askotan atzera botatzen gaitu, eta ez gara horren ondorioez jabetzen. Uste duguna bai-

no larriagoa da arazo hau, burbuila baten bizitzera mugatzen gaitu eta, gure ekintzak baldintzatuz, zapalduta dagoena gorrotatuz, eta zapaltzailea, berriz, aintzat hartuz.

Askoz errazagoa da hedabideek esandakoa eta iritzi orokor bat jarraitzea, ustez egin beharreko gauzak egitea, guzti horri aurre egin eta ezberdina izatea baino. Bada behin entzun nuen esaldi bat: "arrain hilek jarraitzen dute soilik ibaiaren emariaren zentzua". Gauzak aldatu egin behar dira, nahiz eta aldaketak egiteko borrokatu behar izan. Baina, egia ote diot?

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Otsailak 14
16:00: Antzuola-Idiazabal (Erregion.)
Otsailak 15
12:00: Antzuola-Almen (Neskak)

EMAITZAK

FUTBOLA

La Salle 2 Antzuola 1 (2. erreg.)
Antzuola 4 La Salle 1 (Gazteak)
Zestoa 3 Antzuola 2 (Kadeteak)

PILOTA

Eskoriatza II-Olalde (infant.) . . . 18-13
Udaberri Saria
Olalde-Elordi (eskuz kad.) . . . 22-18
Olalde-Eibar (eskuz nag.) . . . 22-8
Olalde-Andazpe (palet. nag.) . . 35-23

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko otsailaren 13a / 173. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Elkarteko bazkide guztiak deituta zeuden arren, gutxi batzuk baino ez ziren azaldu Goibekoren urteko batzarrera.

Goibeko elkartearen asmo nagusia: Espaloia

IRATI AGIRREAZALDEGI

Goibeko kultura elkarteak urteko batzarra egin du asteon. Hainbat gai jorratu zituzten bertan, eta guztietan garrantzitsuenak Espaloia kafe antzokiarena izan zen. Jende asko batu ez bazen ere, bilera emankorra izan zela esan dute elkartekoak.

Goibeko kultura elkarteko bileran egon zirenei, urtean zehar egindako ekintzen berri eman zieten Goibekoko talde eragilekoek. Besteak beste, urtero banatzen den egutegia, euskaraz irakurtzeko egindako kanpaina, Nafarroa Oinezeko materiala nola saldu zuten, loteria kontuak, bazkideen altak eta bajak izan zituzten hizketarako gai.

GOIENA

Goiena Komunikazio Zerbitzuetako partaidetza ere aipatu zen batzarrean, eta gai horrek galdera-erantzun dezente sortu zituen. Asteleheneko Goienkaria-ren gaineko azalpenak eman zituen Iban Arantzabalek eta oso ondo hartu zen aldizkari berriaren ideia

batzarkideen artean. Gainera, Goiena egitasmoarekin aurrera jarraitzeko konpromisoa hartu zen batzarrean.

GOITBko seinaleaz ere egin zuten berba. Askotan ez da gura besteko kalitatez heltzen seinalea Elgetara, eta horren kezka agertu zuten batutakoek. Udalar horren abisua pasa zitzaion, jakinda GOITB ikusteko antena Udalarena dela.

ESPALOA KAFE ANTZOKIA

Herrian zeresan handia ematen diharduen Espaloia kafe antzokiaren nondik norakoak azaldu ziren batzarrean: lanen egoera, lehiaketa publikora aurkezteko asmoa, abalak, diru irteerak eta sarrerak, nortzuk izango diren proiektua bultzatuko dutenak...

Espaloia kudeatzeko bideragarritasun txostena prestatzen dihardu elkarteko talde eragileak

Horren kudeaketa lanetarako kooperatiba bat sortzea erabaki zen batzarrean. Lehiaketa publikoan Espaloia kudeatzeko ardurar Goibekori egokitzu gero, kooperatiba horrek eramango luke pisurik handien.

Hau dena aurrera eramateko, talde eragileko zenbait lagun daude Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziarekin lanean. Bideragarritasun txosten bat prestatzen dihardute eurekin batera, eta oso gustura dabiltzala komentatu zuten. "Zerbitzu ona ematen ari dira Mankomunitatetik eta bideragarritasun txosten zehatzago bat egingo dugu. Horrek balioko digu kudeaketa hobe baterako. Orain arte Udaletik genuen txostena hobetzeko asmoa daukagu, finitzea".

Talde eragilekoek esan digutenez, gauza asko dituzte lotuta eta gura lukete ekainerako proiektua argia ikusten hastea. Dena den, lehenengo pausoa lehiaketa publikoa da.

Goibekokoen esanetan, elkarteko kideendako abantailak izango dira Espaloien kudeaketa Goibekoren gain geratuz gero.

GIZARTEA

Zentro balioanizduna aurten zabalduko da

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Sailak 2.000 biztanle baino gutxiago dituzten hainbat herritan gizarte zerbitzuak indartu nahi ditu.

Horretarako, besteak beste, bultzada emango die landa eremuko zentro balioanizdunei. Guztira, aurten bost irekitzeko asmoa dago, horietako bat Elgetan.

Elgetako Udala arduratuko da zentro horren kudeaketaz, Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza emango badu ere.

OBRAK AURRERA DOAZ

Domingo Iturbe kalean egongo da zentroa eta bertan zazpi lagunen eguneko zentroa eta hiru adinekorendako etxebizitzak babestuak egongo dira. Obrak abian dira, eta lokala egokituko ostean, margotzea, ataripintzea eta altzariz janzea bertan da.

Egun zehatzik ez badakite erabakia egoitza aurten zabaltzea da Udalen asmoa. Zentroaren gaineko informazioa udaletxean bertan jaso dezakete interesatuek.

BIRZIKLAPENA

Trasteak batzeko egunak zehaztuta

Hemendik aurrera hondakin handi eta erabilpenik gabekoen biltzea astero egingo du Mankomunitateak. Eguenetan, gaueko 20:00etatik 22:00etara bitartean atera beharko dira traste zaharrak edukiontzien aldamenera.

Beraz, hurbilen dagoen zabor-edukiontzia ondoan utzi behar dira tresna handiak. Ongi pilatuta eta bide publikoan ahalik eta traba txikien egiteko moduan. Horren harira, trasteak ez dira edukiontzien kontra laga behar.

Hurrengo biltzea otsailaren 13an egingo dute eta bilduko dituztenak altzariak, koltxoak eta etxebizitzaren tresna elektrikoak (hozkaileak, arropa-garbigailuak, telebista ordenagailuak...) izango dira.

OLIOA

Bestalde, olio biltzea zerbitzua hilerokoa izango da: hilabete bakoazken barikuetan, hain zuzen ere. Hurrengo hitzordua otsailaren 27an izango da, 16:00etatik eta 20:00etara, plazan.



PANA DE ROKUA
IZATETXEAL

- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Espezialitateak: babarrun-jana eta saihetsa

SALBADOR 10 ELGETA TEL. 943 76 82 73

ELKARRIZKETA

MIREN ATXOTEGI/DANTZA IRAKASLEA

“Dantza errazak aukeratu ditugu, herritar guztiek egin ahal izateko”

I.A.

Inauterietako dantzen ikastaroa antolatu dute Elgetan. Miren Atxotegi elgetarrak dihardu irakasle lanetan, Arrasateko Unai Diezengandik jasotakoa orain herritarrei irakasten. Inauteri-barikuan plazara irtengo dira dantzara.

Nola bururatu zitzaizuen Inauteri dantzak irakastea?

Aralarkoek, Inauteriei euskal kutsua emateko asmoz, dantzak egitea erabaki zuten, eta ni aurrez dantzan ibilitakoa naizenez, ea irakasteko prest egongo nintzen galdetu zidaten. Baten bat banekien, baina gehiago jakiteko Arrasatera jo nuen eta handik Unai Diez etorri da laguntzera.

Nolako erantzuna jaso du ikastaroak?

Oso ona. Jende asko etorri da eta adin askotarikoak gainera. Eskolan dantzak irakasten dihardute umeez, baita dantza taldean ere, eta gazte eta nagusiak nirekin. Betiko antzera, mutilak neskak baino gutxiago azaldu dira; hala ere, nik uste baino mutil gehiago agertu da.

Nola aukeratu dituzue irakatsi beharreko dantzak?

Hasieran hiru dantza irakastea zen gure asmoa: Gipuzkoako txantxoak, Iparraldeko muttikoak eta Lantzeko zortzikoa, nafarra. Errazenetik hasi gara, txantxoetatik, eta denbora laburra dagoenez, hori gertatuko dugu. Bestalde, plazan, doinu herrikoiekin egiteko moduko beste dantza batzuk ere irakatsi ditugu: korroan hasi eta gero polkekin bikotean dantzatzekoak.

Gero animatuko al da jendea plazan dantzatzera?

Bai, denak asmo horrekin daude. Inauteri-barikuan iluntzean denek jardungo dute dantzan. Elgetako jaietarako Larrain dantza irakatsi genuen eta 00:00etan musika jartzerako jendez betetzen zen plaza. Orain ere berdin izango delakoan nago.



I.A.

Adin askotariko jende asko etorri da ikastarora, eta mutilak ere uste baino gehiago

Dantzarako zaletasunik ba al dago herrian?

Horrelakoetan animatzen da jendea, baina behin eta berriz esan behar izan diegu elgetarrei dantza errazak direla, giro polita izango dela Inauteri-barikuan... ikastarora etortzeko.

Jendea animatu nahi dugu euskal Inauterietako pertsonaien mozorroak janztera

Mozorro berezirik jantzi behar al duzue?

Eskolako umeez euskal Inauterietako pertsonaien mozorroak jantziko dituzte, baita guraso batzuek ere. Herritarrek ere animatu nahi ditugu horrela janztera, nahiz eta derrigorra ez izan.



San Blas ospakizuna Azkaraten

Domékan, eguraldia lagun, zenbait elgetar Azkarate auzoko San Blas ermitara gerturatu zen. Opilak eta gozokiak ermitan bedeinkatu ondoren, honen barreneko baserriaren aldamenean salda eta txorizoa jateko aukera izan zuten bertaratuak. Hori guztia Bergarako Miren eta Maite trikitilarien soinu eta pandero doinuz lagunduta./I.A.

LABUR

Erretiratu eta pentsiodunendako mahai jokoak izango dira bihar, zapatua, egoitzan

Gipuzkoako erretiratu eta pentsiodunen egoitza guztietan egingo duten bezalaxe, Elgetakoan ere mahai jokoen txapelketak antolatu dituzte. Bihar, zapatua, hilaren 14a, izango da hitzordua 15:30ean egoitzan bertan, eta antolatzaileen esanetan, hamar edo hamabi lagun inguru elkartuko dira. Bertarutzen direnek briskan, musean zortzi erregetara, tutean eta puntuan jokatzeko aukera izango dute. Elgetako saioan irabazten dutenak Elgoibarrera joango dira Debabarreneko partaideekin lehitzera. Ondoren, finalak Donostian jokatu dira. Orain artean elgetarrak ez dira azkeneraino iritsi, baina aurten ere ahalegina egingo dute.

Bertan behera geratu da Gazte Asanbladak antolatutako sagardotegirako irteera

Gazte Asanbladak sagardotegirako irteera antolatu zuen, bihar, zapatuak. Izena emateko azken eguna astelehena ipini bazuten ere, inork ez zuen joateko asmorik azaldu, itxuraz data oso egokia aukeratu ez zutelako; beraz, Hernanirako irteera bertan behera lagatzea erabaki zuten antolatzaileek. Bestalde, datorren barikuan, hilaren 20an, gaztetxean Inauteri jaia izango dela aurreratu digute Gazte Asanbladakoek. Oraindik zein musika taldek jardungo duten zehaztu ez badigute ere, kontzertua izango da. Gainera, gaztetxea bera ere okasiorako gertatuko dute Gazte Asanbladakoek, eta jendeari Inauteri-barikuko jai honetara mozorrotuta joateko dei egin nahi diote.

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

BOLATOKI

Eguneko menua
Asteburuan menu bereziak
Konbinatuak, ogitartekoak eta kazuelatxoak
Karta eta babarrun-jana enkarguz

Artetale 2, ELGETA. 943 76 82 84

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •
- Podologia •
- Solariuma •
- Drenaje linfatikoa •
- Algekin eginiko estalkia •
- Depilazioa laser bidez •

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

ERRETRATU ZAHARRA

ELGETA

Apezpikua
Elgetan izan
zenekoa


Egun berezia izan zen, dudarik gabe, lau neskatila hauek argazkia atera zutenekoa. Izan ere, okasiorako dotore jantzita agertzen dira laurak soinekoarekin. Jantzi dotoreak ez ezik, euretako bik mantila ere badaramate buruan. Garai hartan, elizkizunetara joateko batek baino gehiagok erabili ohi zuen mantila.

Esan bezala, berezia izan zen egun hura. Elgetara apezpikua etorri zen orduan, 1959ko uztailaren 12an, hain zuzen ere, eta ordutik hona elgetarrek ez dute gogoan berriz apezpikuren batek herrira bisita egin duenik.

Apezpikua zetorrela eta, ohi baino jende gehiago izan zen mezatan, eta eliza kanpoan argazkilaririk ez zen falta. Garai hartan horrelako ekitaldi berezietan edo jaietan baino ez zen joaten argazkilaria Elgetara. Beraz, oroimenerako lagun hauek erretratua ateratzeko eskatu zioten Elorriotik Elgetara propio joandako argazkilaritari.

Orain dela ia 45 urte eliza nagusiaren aurreko lorategietan ateratako erretratuan irribarrez agertzen diren lau neskatilak sarritan ibiltzen ziren elkarrekin. Honako hauek dira, ezkerretik eskumara: Maria Asun Agirre, Mari Carmen Sancho, Mari Carmen Etxeberria eta Mari Tere Erostarbe.

Argazkia: Maria Asun Agirre



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARa (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

ILUNTZEAN

Andoni Aizpuru solaskide


Eguenean, otsailaren 19an
21:15ean

Aurkezlea:
Aintzane Gardoki

Goitb
Goiena Telebista

Ikusiko
duzu!

ILUNTZEAN
Ile apaindegia: Gorka
Jantziak: Udalaiz





ORDUTEGI BERRIA

Lehen urteurrenean eskerrik asko
bezero eta lagun guztiei

Astelehenetik egubakoitzera 16:00etatik 20:00etara
Zapatuetan 10:00etatik 13:00etara.

Mota guztietako konponketak egiten dira jantzietan.

SAN PEDRO 12 · Tel.: 943 76 34 61



ile apaindegia



ile apaindegia



ile apaindegia



ile apaindegia



HELBIDE BERRIA

Sagasti I, Antzuola Tel.: 943 78 71 37

Otsailaren 14an zapatuan, inauguraziora gonbidatzen zaituztegu 18:30ean

integratzailea anitza euskalduna dohaina

SAN MARTIN
IPINTZA
M. ALTUNA

BERGARAKO
IKASTETXE
PUBLIKOAK



2004-2005 ikasturterako matrikulazioa epea otsailaren 16tik 27ra.

SAN MARTIN

HAUR ETA LEHEN
HEZKUNTZA
(HH-LH) (2-12 urte)

Boni Laskurain 25
Tel.: 943 76 21 47
e-maila: 012265aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net
SanMartinAgirreEskola



SAN MARTIN ETA IPINTZA GURASO ELKARTEAK

IPINTZA

DERRIGORREZKO
BIGARREN
HEZKUNTZA
(DBH) (12-16 urte)

Boni Laskurain 17-19
Tel.: 943 76 31 42
e-maila: 012981aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/ipintzabhi

DENON LANAREKIN ETORKIZUNA JORRATU

ORDUTEGIA: 09:00etatik 13:00etara / 15:00etatik 17:00etara